

Getxo Meeting urtarrilaren 26an: aholku-trukea

Saio horren xedea binaka aholkuak ematea izan zen, ondoren horiek partekatze eta parte-hartzaile guztiei balioko dizkieten gakoak ateratzeko.

Halabeharrez, oraingo honetan bertaratutako guztiak profesionalki lotuta zeuden, modu tangenzial edo zehatzagoan, osasuna-kirola-ongizatea esparruari; hori bertaratutakoen artean elkarguneak topatzeko beste arrazoi bat izan zen.

Aurkezpen-txanda baten ostean, binaka egindako elkarrizketen hainbat txanda burutu genituen; bertan, bakoitzak daukan helburua partekatze nahiz beste baten *feedback*-a jasotzeko aukera egon zen.

Ondoren, hausnarketa-txanda bat egin zen, bertaratutako guztiak negozio propioa daukan orori kezkatzen dizkieten gaiez jardun zitezten. Debatea diruari lotutako usteen inguruan izan zen bereziki, eta uste horiek negozioaren iraunkortasuna hobetzen laguntzen duten prezio onak finkatzeko orduan askatasunez jardutea nola mugatzen duten eztabaidatu zen ere bai.

Saioaren bigarren erdian jorratutako beste alderdi garrantzitsu bat sustapen-ideia errazak gauzatzeak zenbat kostatzen duen izan zen; hau da, gure enpresa-kokapena hobetzeko onura asko eman ditzaketen ekintzak. Hala eta guztiz ere, ekimen horiek aurrera ateratzea zerk oztopatzen duenari buruz hausnartu zen. Gehien adostutako ondorioetako bat lortzeko nahiz inplementatzeko errazak diren helburuak ezartzeko eta horien burutzapen-data jartzeko beharra izan zen. Konfiantza-giroan zailtasunak partekatzeak eta eredu horien atzean benetan dagoena aipatzeak saio horretara bertaratu zirenek aurrerapausoak egiteko zeukaten motibazioa areagotu zuten.